

MARIA ELENA LETE GARCIA Bergarako Udaleko Alkateak emandako

DEKRETUA

Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2018-KALD-000002-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0220.227.171.00.99 2018	KANPO KONTR - PARKEAK	10.000,00	4.000,00	6.000,00
GUZTIRA		10.000,00	4.000,00	6.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0220.601.171.00.01 2018	UREZTATZE INST. ETA PARKEAK	10.000,00	4.000,00	14.000,00
GUZTIRA		10.000,00	4.000,00	14.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran

Hau da Alkate andreak agindu eta sinatu duena, Bergaran, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hogeita bostean, eta nik, Idazkariak, ziurtatua.



A smaller, more legible signature in blue ink, positioned to the right of the official seal.